


## **Euskadiko hamar gaztetik zazpik interesa izan dute 2015eko hauteskunde orokorretan**

### ***Hamar gaztetik seik Interneten edo sare sozialen bitartez jarraitu dute hauteskundearen inguruko informazioa***


Euskadin 18 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zazpik interes handia edo nahikoa interes izan dute abenduaren 20an izandako hauteskunde orokorretan. Gazteek izandako interesa gainontzeko biztanleek adierazitakoa baino handiagoa izan da.




Gainera, gazteek 2015ean adierazitako interesa [2011](#)ko hauteskunde orokorrekiko izandakoa baino handiagoa izan da, orduan gazteen % 44k soilik esan baitzuten oso interesatuta edo nahikoa interesatuta zeudela.

Hori dela eta, hamar gaztetik lauk (% 39) diote hauteskundearen aurreko asteetan gai hau askotan atera zela lagunekin izandako solasaldietan, biztanleria osoaren batez bestekoaren gainetik (% 27).

Gazteen % 60k adierazi dute Interneten edo sare sozialen bitartez jarraitu dutela hauteskundeei edo hauteskunde-kanpainari buruzko informazioa. Portzentaje horrek bikoiztu egiten du 30 eta 45 urte bitartekoen artean jasotakoa (% 31) eta 45 urtetik gorakoena baino askoz altuagoa da ere.



Hauteskundeen emaitzak ezagutu eta gero, gazte gehienek (% 81) esan dute botorik gehien lortu duen alderdiak (PP) gobernatzearen ordeztu behar dela beste alderdi batek gobernatzea babes nahikoa lortzen badu. Kasu honetan ere alde nabarmenak daude gazteen eta 30 urtetik gorakoen artean.



Espainaren gobernuaren osatzeko gazteek nahiago dituzten formulak hauek dira: PSOE, Podemos eta alderdi nazionalisten arteko ituna (% 44) eta, bigarren aukera, PSOE+Podemos (% 22).

Aipatutako datuak [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu hauteskunderen ondoren Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) egindako txostena oinarri hartuta. Txosten horrek "[2015eko hauteskunde orokorren ondoko inkesta](#)" du izenburu.